

b.e.r.r.i.a.k

z.i.r.i

BILL CLINTON

Estatu Batuetako lehendakaria



«Ez dut nahi atzerrian jendeak pentsatzea Estatu Batuak beren burua suntsitzeko nolabaiteko or-gia batean murgilduta daudenik»

UNIVERSAL PRESS
SYNDICATE

KOLDO IZAGIRRE

Idazlea




«Euskara unibertsa delako horrek ez ditu hogeita hamar urte. Gu pribilegiatu hutsak

8.12.98

IRUTXULO

JOSE MARI LARRAÑAGA

ELA-Metaleko idazkari nagusia



«Urte askotako jarrera defentsi-boa alde batera utzi eta jarrera ol-darkorragoak eta erreibindikati-boagoak hartzen ari gara»

BURDIN

JUAN JOXE AGIRRE

Lazkaoko komentuko beneditarra



«Eskale baten antzera lurretik bildu eta paperak txukuntzen aritu behar izaten dut askotan»

GALTZAUNDI

i r i t z i a

zuzendaria

OHARRA: Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANen zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko. Gutunak faxez, posta arruntez edo posta elektronikoz bidal daitezke (helbide elektronikoa: egunkaria@jalgi.com).

Enkartazioez eta Gorrotxategiz

Mikel Gorrotxategi Nieto gezurretan ari da. Gezurra esaten du 16ko bere gutunean zabaltzen duelako nik esana dela «ez dagoela frogarik euskara Enkartazioetako hizkuntza izan denik baieztatzeko». Gezurra dela berriz diotsuet. Izan ere, nik beti aipatu izan dudana zera da: euskara berezko hizkuntza ez dela Enkartazioetako zati batean, Sopuertako Avellanadatik Kantabriarekiko mugaraino doan tartean, hain justu, tokian tokiko salbuespenak salbuespen. Hauxe esan nuen, hala nola, iragan urteko azaroaren 9an nire gutun batean: «Zenbaitzuen ustez, esaterako -muga Avellaneda inguruan legokeela uste dut, orain ez dut zehazki gogoratzeko- euskara ez da inoiz egin». Eta gauza bera iradokitzen zigun hil honen 13an plaza-ratu nuen eskutitzak: «Baina gauza bat da enkartauak euskaradunak izatea eta beste bat, arras ezberdina, enkartauak beren eskualdearen hein handi bateko izaera erromanikoaz («erromantze» esan behar?) ahantz daitezela». Ohar zaitezte «hein handi bateko» diodala. Eta *El correo*-n hurrengo egunean, 14an, alegia, atera nuen beste eskutitz batean gauza bera nioen: «Enkartazioetako parte handi batean ez da euskara inoiz egin (ditugun datuek, behintzat, honelaxe adierazten digute)». Beste zatian -Avellanadatik Bilbora- badakit euskaraz mintzo izan dela. Zergatik dabilkigu Mikel gezurretan? Berak jakingo du.

Gainera, Mikelek ere bere egiten du kontu hau, ondokoa baitiosku: «Toponimo horiek hizkuntza egoeraren berri ematen digute eta argi uzten dute hizkuntza bi egon direla Enkartazioetan, ofiziala eta leku askotan bakarra zena, erromantzea, eta beste bat administratibotik kanpo, euskara». Honetan, beraz, iritzi berekoak gara biok. Erantsi nahi nuke «administratibotik kanpo» beste hizkuntza bat ere badutela Enkartazioek: kanta-

briera edo *montañés*-a, Carranzan, gutxienez, egin. Honetaz Isabel Etchebarria Isuskitzaren artikulu bat irten berri da *Dialektologiako eta Herri Tradizioetako Aldizkaria*-n (RDTP, LIII-1. CSIC, Madril, 1998). Izango al dugu euskal nazionalistaren bat euskararekin batean *montañés*-a ere euskal hizkuntzatzat aldarrikatuko duena?

Mikelek Colisa «erromantze» dela esatea zail» dakusa. Eskertuko nioke arrazoiak, datuak, frogak... emango balizkigu. Nik dakidan bakarra zera da: bertako zahar edo helduek Colisa esan dutela beti (*La Colisa* ere dokumentatua da). Bonaparteren mapan ere Colisa ageri zaigu. Bide batez, jakin nahi nuke non demontre dauden dokumentatuak *Garape* eta *Isasti* izenak Sopuerta eta Lanestosa udalerriak hurrenez hurren izandatzeko. Nik esango dizuet: inon ez. Asmakeriak dira (J. M. Sasia, besteak beste, erantzule). Eta azkenaldion Carranzan zabaldu nahi den *Haitzko* edo dena delakoa era asmatua da.

Orobat, toponimoek batzuetan ez digute balio paraje askotako jatorrizko hizkuntza zein izan den argitzeko. Enkartazioetan *La Quadra* edo *La Cuadra* izena duten hiru toki dira, Güeñes, Musques eta Arcentalen. Bada, hiru lekuetan leinu edo familia bereko dorretxeak izan ziren. Eta pentsatzekoa da *La Quadra*-ren orde euskarazko izan bat izan balitz, hiru lekuetako toponimiak euskarazkoak izango zirakeela.

Ados nago Mikelekin «izenak bere jatorrizko hizkuntzaren arabera eman behar direla» esatean. Baina, Mikel, nik ez dut ezein sal-

buespenik ontzat ematen, eta Carranza idazten dut *Karrantza*-ren kaltetan. Erdarazkoak oro erdaraz ipintzen ahalegintzen naiz, eta euskarazkoak oro euskaraz.


Halaber, min egiten dit, bai, Olentzero Enkartazioetara zabaltzeak, baina, zuen informaziorako, gure etxean ez da inongo Errege Mago, Santa Klaus edo Papa Noelik ospatzen. Olentzerozale ez garela dudarik ez, baina besteek ere jai daukate gurean. Uste dut eskualde guztietako berezko tradizioei, ohiturei eta ondare kulturalari eutsi egin behar diegula, baina honek ez du bidea ematen herrialde batzuetako ohiturak beste batzuetakoez ordezkatzeko, eta Enkartazioetan hauxe ari da gertatzen, adibidez, Olentzeroen kasuan.

Mikelek bere gutuna biribiltzeko darabilen bukaerako esaldiaz amaituko dut nik neurea: «Argi dago Enkartazioak anitzak izan direla kulturaren eta jarrera baztertzailen horiek ez datozela bat gure historiarekin eta kalte baino ez dutela egiten». Bada, jarrera baztertzailen bakarrak orokorrean euskal nazionalistenak direlakoan nago, haiexek baitira Enkartazioetako parte bateko berezko erdaraduntasuna inon ikusi nahi ez dutenak. Eta sakonean harritu nau Mikel Gorrotxategi bezalako EGUNKARIAren irakurle batek erdaratasun hori onartzeak. Txalogarri deritzot.

● Juan Luis Fernandez Gutierrez

GETXO (BIZKAIA)

ZULET / DIARIO VASCO



Gure arteko su-etena sinatu beharko genule lehenbizi ezta?

s e i k o u r r e a

Xabier Oleaga**Astindua**

Berriro dagokit EGUNKARIAko leihota-ko batean lekua izateko pribilegioa, eta ez edozelako leihota, urrezkoan, eta ez edozelako garaian, galtzetinari buelta eta igurtzia eman dion ETaren su-etenetik lasterrera. Ohorezko leihota honetatik pastua diren goi hegazkerako txorien lumaren neurria gerturatzeko erronkaren aurrean nirea ausardia baino atrebentzia ez ote den naukazu, irakurle, estreinu lehen taupada honetan. Baina Pepe eta Martxeloren gonbitari baiezkia eman nion, eta hemen naukazu hilabete batzuetarako. Besterik gabe,



zure baimenarekin, uretara salto eta buruz behera gainera.

Lizarran bildu ziren eta orain arte elkarrekin ez zirenek orain arte ez bezala hitz egin zuten. Handik egun batzuetara iritsi zen azken asteetan arnasan ere iragarrita zetorren ETaren mezua eta dena astindu zuen. Astindu diot. Behin batean, EGUNKARIAN erredaktore-buru jardunean eta lehen orrialdeko goiburua nagusiarekin ari nintzela, hitz hori erabili genuen Ertzaintzaren balentria bat deskribatzeko. Lakuako bulego nagusietan ez zen batere gustatu eta jakinarazi ere egin ziguten. Barka lehen eguneko eztenkada nostalgiko hau. Ziur nago oraingoan astindu hitzak ez duela eragozpenik sortuko.

Eta orain zer? Bada, nik orain Lizarrakoen hitza espero dut berriro ere. Logika sekuentzialak berak hala eskatzen duela uste dut. Dei bat egin eta erantzuna jaso duen aitzindariari balorazioa eta aurrerapideak ematea dagokio.

Eta besteok, geldirik egon behar dugu? Ez dut uste. Ez da artegatzen hasteko unea. Ez horixe. Baina ezta ere pasibitatean erortzekoa. Egoera zailagoetan ibili izan gara sinadura-bilketa eta antzekoetan. Lizarrako

taldeak blindajea behar du, gizarte aktiboaren blindajea, sartzeko atea beti irekita egon dadin, baina irteteko itxita. Hor dagoen baten batek tentaldi handiak jasango ditu datozen asteetan berriro lehengo topagune-etara bihur dadin. Esperantza Lizarran jarrita daukagunok argi utzi behar diegu presioa jasango duten horiei, garai luze itzaldutako konfiantzak irabazi egin dituztela.

Gero, ez dakit noiz, Lizarrakoaren aldeko kalea hartu beharko dugu. Hango handitasuna kalean, manifestazio erraldoi batean, azken hamarkadetan aurkitu ez garenak elkarren ondoan pasealdi bat eginez, adierazi behar dugu. Gehiengoaren indarra erakutsi beharra dugu. Bizkorregi noa?

Madrialek badakigu zer egingo duen. Denbora irabazten, edo galtzen, saiaturko da. Su-etenen inguruan ETaren barne zakiketak hitz egin nahi izango digu, eta bere Konstituzioarekiko leialtasunaren ize-nean Estatuaren betiko intrantsigentzia adierazten saiaturko da. Oraingoan bai, guk geuk erakutsi behar diogu PPri oker dagoela, bakarrik dagoela. Madrialek mugitu egin behar du, zalantzarik gabe, baina mugimendu hori euskal gizarteak eragin behar du edo ez da izango.